| DATU PERTSONALAK EDO ONTZIAREN DATUAK ALDATZEKO ESKABIDEA | |
|---|---|
| Zer da? Zertan datza? | Indarrean dagoen amarratze-plaza baten titularrak titularraren edo ontziaren datuak aldatzeko eskabidea entregatzean datza. |
| Nork eska dezake? | EKPren portu batean indarrean dagoen amarraleku baten edozein titularrek edo haren legezko ordezkariak, behar bezala egiaztatuta. |
| Aurkeztu beharreko dokumentazioa | • Datuak aldatzeko eskabide-inprimakia.<br>• Eskatzailearen nortasuna egiaztatzen duen NANa.<br>• Kontu-zenbakia, aseguru-poliza edo ontziaren datuak aldatuz gero, datu pertsonal berriei dagozkien egiaztagiriak: kontu-zenbaki berriaren edo poliza-zenbakiaren ziurtagiria, ontziaren idazpen-orria, etab. |
| Non izapidetzen da? | • Ahal dela, eskabidea egiten den portuko kapitaintzan, jendeari arreta emateko ordutegian (kontsultatu helbideak).<br>• Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak ezarritako bitartekoen bidez. |
| Betebehar ekonomikoak | • Eskabide-izapideak ez dakar betebehar ekonomikorik. |
| Prozesuaren edo ebazpenaren epea | • Aurreikusitako epea: hilabete 1<br>• Legezko epea: 3 hilabete |
| Lege-esparrua | • 2/2018 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Portuena eta Itsas Garraioarena.<br>• Amarratze Agindua, 2017ko urriaren 19koa.<br>• 39/2015 Legea, Administrazio Prozedura Erkidearena.<br>• Beste araudi batzuk. |
| Oharrak | Datuak aldatzeko eskabidean 2017ko urriaren 19ko Amarratze Aginduan ezarritakoa betetzen ez dela ikusten bada, emakida iraungitzeko prozedura hasiko da.<br>Inola ere ezin izango da aldatu baimendutako ontziaren daturik, baldin eta horrek esleituta duen plazarekin alderatuta kategoria aldatzea badakar, edo haren neurrietara eta maniobragarritasunera egokitu ezin bada. Halakorik gertatuz gero, emakida iraungitzeko prozedura hasiko da. |
| Onarpena | Kudeaketa-aplikazioan datu berriak sartzea. |
| Jaso ondoren jarraitu beharreko prozedura | Eskabidearen berrikuspena eta azterketa. |
| Ondorengo izapideen laburpena | Ez da aplikatzen |